

KULTURA KLASIKOA

KULTURA KLASIKOA	1
1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2
1 GAITASUN BERARIAZKOA	2
1 konpetentzia espezifikoren deskribapena	2
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	2
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2
2 GAITASUN BERARIAZKOA	3
2 konpetentzia espezifikoren deskribapena	3
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	3
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	3
3 GAITASUN BERARIAZKOA	3
3 konpetentzia espezifikoren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
4 GAITASUN BERARIAZKOA	4
4 konpetentzia espezifikoren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	5
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	5
2. OINARRIZKO JAKINTZAK	5
A. Esparru geografiko eta historikoa.	5
B. Mitologia eta kultura.	6
C. Hizkuntza klasikoak: etimologia eta lexikoa.	6
D. Legatua eta ondarea.	6

KULTURA KLASIKOA

Antzinate Klasikoaren tradizioak eta herentzia kulturalak prestakuntza humanista ematen diete Europako herritarrei. Hezkuntza humanista horren arabera, pertsona eta haren duintasuna funtsezko balioa da, eta prozesu demokratikoetan parte hartzeko beharrezko gaitasunak eskuratzeko gidatzen du. Ikasgai honek giza eta gizarte zientzien ezagutzak ez ezik diziplina zientifiko eta teknikoak ere finkatzeko oinarri sendoa lortzen laguntzen du. Beraz, Kultura Klasikoa ikasgaiak aukera ematen du historiaren, erlijioaren, literaturaren, artearen, zientziaren eta hizkuntzaren ikuspegitik greziar eta latindar zibilizazioetara hurbiltzeko eta egungo munduan duten eragina ezagutzeko, identitate kulturean, tokikoan, nazionalen eta europarrean sakonduz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kultura Klasikoko konpetentzia espezifikoak funtsezko konpetentzien zehaztapenaren bigarren maila dira, eta irteera-profilaren, oinarritzko jakintzen eta ebaluazio-irizpideen arteko lotura-elementua dira. Konpetentzia horiek orainaren eta iraganaren arteko elkarriketa biltzen dute, eta hiru ardatz nagusitan oinarrituta planteatzen dira: legatu klasikoaren izaerari buruzko gogoeta humanista erdigunean kokatzea, egungo munduaren ulermen kritikoa sustatzea eta eleaniztasunerako konpetentzia hobetzen laguntzea, ikasleek beren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egin dezaten bultzatuz.

Ebaluazio-irizpideak konpetentzia espezifikoak lotuta daude eta horien lorpen-maila egiaztatzeko balio dute. Era berean, oinarritzko jakintzekin modu malguan konektatzen dira. Ebaluazio-irizpideak identifikatzeko, deskribatzeko, ikertzeko, azaltzeko... estrategiekin lotzen dira, hizkuntzen arteko erlazioari buruz hausnartzeko eta zibilizazio greko-latindarraren legatua kritikoki baloratzeko.

Oinarritzko jakintzak lau bloketan antolatuta daude. Lehenengoak, «Esparru geografikoa eta historikoa» izenekoak, toki enblematikoak (aurkitu zituzten pertsonetako batzuk barne) ezagutzeko eta mugarrak historikoa eta pertsonaia nabarmenak ulertzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu. Zibilizazio greko-latindarreko sistema politiko garrantzitsuenak sartzeak iraganaren eta orainaldiaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruzko hausnarketa sustatzen du, espiritu kritiko eta humanistatik abiatuta.

Bigarren blokeak («Mitologia eta kultura») mitologia klasikora hurbiltzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, eta inspirazio artistiko, zientifiko eta kultureko iturri gisa duten balioa ezagutzen eta balioesten du. Gainerako jakintzek pertsonari, erlijioari eta funtzionamendu sozialari buruzko kultura-elementuak barne hartzen dituzte. Bloke honek zibilizazio grekoa eta erromatarra Europako identitatearekin lotzen ditu.

Hirugarren blokeak, «Hizkuntza klasikoak: etimologia eta lexikoa» izenekoak, Europako hizkuntza gehienak, greziar etimoen eta latinoen jatorri komunari buruzko jakintzak biltzen ditu, eta hiztegia aberasten laguntzen du. Bloke hau osatzeko, hizkuntza klasikoetarako lehen sarbidea dago, latinezko lokuzioen, inskripzioen eta esaldi ezagunen bidez, eta gaur egungo hainbat testuingurutan duten presentzia ikertzen da.

Laugarren eta azken blokeak, «Legatua eta ondarea» izenekoak, zibilizazio greko-latindarraren ondare material eta immaterialera hurbiltzeko aukera ematen duten ezagutzak, abileziak eta jarrerak biltzen ditu, eta zibilizazio latindarraren balioa aintzat hartzen du, inspirazio iturri gisa, teknika gisa eta historiaren lekuko gisa. Bloke honetan, gainera, Nafarroa erromatarra eta inguruko aztarna klasikoak aurkitu nahi dira.

Oinarritzko jakintzak eremu pertsonalean eta hezkuntza eremuan aktibatzeak aukera izan behar da, baina baita eremu sozialean, teknikoan eta metodologikoan ere. Ildo horretan, Kultura Klasikoa ikasgaiak aukera ematen du jakintzak konbinatzeko, testuinguruan kokatutako ikaskuntza-egoeren bidez, ikasleek beren trebetasunak gara ditzaten. Aldi berean, ikasleek artean Antzinateko kulturari buruzko ezagutza eta kultura horrek gaur egunera arte iraun izanari buruzko hausnarketa areagotu eta hobetzen du. Kultura Klasikoaren irakaskuntza orainaren analisi kritikoan eta ulermenean oinarritzen da, zibilizazio klasikoetan oinarritzen den prozesu historiko gisa.

Ikaskuntza egoeren bidezko lanak, gainera, Kultura Klasikoa beste ikasgai batzuekin lotzeko aukera ematen du, etapako helburuak eta konpetentziak eskuratze aldera. Osagarritasun hori bizitzean, lana esanguratsua eta garrantzitsua bihurtzen da ikasleentzat. Azkenik, Europako herritartasun demokratikoa eta aurreiritzirik gabea eraikitzen laguntzeko, ikasgai honetatik nazioz haraindiko lankidetzak egiteko aukera dago, Europako programen esparruan, eta kultura klasikoa egungo identitate europarra osatzen duten errealitateen topagune gisa landu. Horrela, Kultura Klasikoa ikasgaiak lagundu egin behar du ikasleek modu egokian lor ditzaten ahalik eta garapen pertsonal, sozial eta prestakuntzako handiena izateko aukera emanen dieten gaitasunak eta funtsezko konpetentziak, etapako konpetentzia profila osatu behar dutenak, herritar arduratsuak izatea eta XXI. mendeko erronkei eta desfizioei aurre egin ahal izatea ere bermatzen dutenak.

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1 GAITASUN BERARIAZKOA

Greziar eta erromatar zibilizazioek Europako identitatearen jatorrian duten zeregina baloratzea, historian zehar izan dituzten antolaketa politiko, sozial eta ekonomikoko ereduak aztertuz eta bereiziz. Gaur egungo egoerarekiko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, gure sustrai klasikoek jabetzeko.

1 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena

Zibilizazio greko-latindarrak Europako identitatearen hasiera gisa duen zeregina balioesteko, beharrezkoa da bi zibilizazioen analisi geografikoa, historikoa, politikoa, ekonomikoa eta soziala egitea, eta mugarri geografikoak eta kulturalak identifikatzea Europaren eraikuntzaren elementu integratzaile gisa. Konpetentzia honek aukera ematen die ikasleei greziar eta erromatar zibilizazioen kokagune esanguratsuenak eta historian zehar izan duten etengabeko bilakaera aztertzeko eta egungo kokalekuekin lotzeko. Gainera, Greziako eta Erromako aldi historikoak, gertaera eta pertsonaia nagusiak eta sistema politikoak identifikatzen laguntzen du, eta egungo gizarteetakoekin alderatzea sustatzen du, giza eskubideekin, genero-berdintasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako ikuspegi batetik.

Konpetentzia honek gure sustrai klasikoek jabetzen laguntzen du, eta, horretarako, informazioa bilatu, hautatu eta tratatu behar da euskarri analogiko eta digitalen bidez, ezagutzaren gizarterako beharrezkoak diren tresnak baitira.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.1. Greziar eta erromatar zibilizazioaren espazio geografikoak identifikatzea eta haien sistema politiko eta ekonomiko adierazgarrienak deskribatzea, mapen, planoen eta hainbat iturri historikoren bidez. Bi zibilizazioen arteko aldaketak eta gaur egungoetan duten isla erlazionatzea.

1.2. Euskarri analogikoen, digitalen eta bestelakoen bidez, egungo une historikoan garai greko-erromatarreko gertakari historikoek duten eragina baloratzea, informazioa hautatzeko, kontrastatzeko eta antolatzeko.

1.3. Pertsonaiak beren testuinguru historikoan identifikatzea eta egungo erreferenteekin lotzea,

eskuratutako ezagutzak aplikatuz.

1.4. Kultura klasikoko pertsonaiei eta gertaerei buruzko informazioa bilatzea, hautatzea eta antolatzea, irakurtzeko konpetentzia sustatzeko. Informazio hori lortuko da hainbat euskarritako testu zatiak –egokituak zein originalak–, artikulak eta liburuak irakurrita.

2 GAITASUN BERARIAZKOA

Greko-erromatar kultura-adierazpenak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea, bai eremu pertsonalekoak bai kolektibokoak, egungo kultura-adierazpenekin loturak ezarriz eta, besteak beste, informazioa bilatzeko eta tratatzeko tresna digitalak erabilita.

2 konpetentzia espezifikaren deskribapena

Zibilizazio greko-latindarraren ezaugarriak eta hark europar identitateari egin dion ekarpena aztertzeko, hainbat iturriren bidez adierazitako informazioa jaso eta alderatu egin behar da, horretarako aktibatuz estrategia egoki batzuk, ahalbidetzen dutenak hausnartzea legatu klasikoari eta haiek gure gizartean duten presentziari buruz. Konpetentzia espezifikoa hau hiru eremuren inguruan egituratzen da: eremu pertsonala, zeinak barne hartzen baititu, adibidez, familia-loturak eta antzinako munduko bizitzako etapak edo adinekoekiko errespetua; eremu erlijiosoa eta pertsonak jainko eta errituekin duen harremana, eta eremu soziopolitikoa, pertsonen arteko harremanei arreta eskaintzen diena. Iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioaren azterketa kritikoa egiteko, ikerketa egin behar da eta gidatutako informazioa bilatu behar da, taldean edo bakarka, iturri analogikoetan zein digitaletan.

Konpetentzia honek, gainera, Antzinate Klasikoaren herentziarekiko eta haren jatorri diren kultura-desberdintasunekiko errespetuan laguntzen du, inguruko munduarekin konprometitutako herritartasun demokratikoa sustatzeko helburuarekin..

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

2.1. Gizarte greko-erromatarreko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak kritikoki baloratzea, egungo gizarteekin alderatuta.

2.2. Gaur egun bizirik iraun duten gizarte greko-erromatarreko bizimodu, ohitura eta jarreraren elementuak identifikatzea.

2.3. Mitologia greko-latindarraren elementuak identifikatzea eta azaltzea, egungo munduko hainbat eremutan inspirazio-iturri gisa.

2.4. Ahoz, idatziz edo modu multimodalean azaltzea zibilizazio greko-erromatarren legatu materialaren eta immaterialaren ikerketatik –bakarkakoa edo taldekakoa– ateratako ondorioak, bai eta gaur egun duen iraupena ere.

3 GAITASUN BERARIAZKOA

Irakaskuntza-hizkuntzetan eta ikasleen banakako errepertorioko beste hizkuntza batzuetan grekoarekiko eta latinarekiko (etimologiak eta lexikoa) lotura ezagutzea, kultura-aberastasunaren erakusgarri. Hizkuntza klasikoak jakintzaren eremu desberdinetan ezinbesteko hizkuntzat hartzea.

3 kompetentzia espezifikoen deskribapena

Hizkuntza klasikoaren etimologiaren eta lexikoaren oinarritzko elementuetarako sarrerak norberaren hizkuntzen eta hizkuntza berrien ikaskuntza eta komunikaziorako kompetentzia hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak aktibatzen ditu ikasleengan. Kompetentzia honek aukera ematen du hizkuntza barietateak eta profilak ezagutzeko eta balioesteko. Orobat, kultura partekatua eraikitze, lagungarria da aniztasuna –hizkuntzena, dialektoena eta kulturena– identifikatzeko, baloratzeko eta errespetatzeko. Era berean, irakaskuntza-hizkuntzen lexikoa hobeki ulertzea sustatzen du, baita ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ere. Alde batetik, ulermenezko irakurketa eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen ditu, hiztegia ezagutuz. Bestetik, trebetasun lexikoak eta semantikoak garatzen laguntzen du, eta jatorri greko-latindarra duen lexiko arruntaren esanahiaren inferentzia-estrategiak eskuratuz eta hiztegi kultura, zientifikoa eta teknikoa osagai etimologikoetatik abiatuta ulertzen.

Hizkuntzen arteko konparazioa egiteko, halaber, grekoaren transkripzioarako eta latinetik hizkuntza erromanikoetara eboluzio fonetikoaren egiteko oinarritzko arau batzuk erabili behar dira, alfabeto grekoa eta latindarra ezagutu ondoren. Horrela, grekotik eta latinetik eratorritako hitzak identifikatzea lortzen da. Horrek guztiak grekoaren eta latinaren esamolde ezagunak jatorrizko hizkuntzan irakurtzen eta interpretatzen laguntzen du. Kompetentzia honek hizkuntza berriak ikasteko prozesuan hizkuntza klasikoek duten erabilgarritasunari buruzko hausnarketa dakar berekin. Ikasteko prozesu hori tresna digitaletan oinarrituta egiten ahal da, besteak beste.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, ELK1, ELK2, ELK3, STEM1, KD1, KD2, KD3, KPSII3..

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- 3.1. Grekoa eta latina sorburu duten hizkuntza- eta kultura-aniztasuna identifikatzea, ikasleen ingurunean hizkuntza-antzekotasunak eta -desberdintasunak azalduz.
- 3.2. Grekoaren eta latinaren terminoen esanahiak ondorioztatzea, ikasleen banakako errepertorioko beste hizkuntza batzuen ezagutza lexiko eta fonetikoak aplikatuz, grekoa eta latina eta ikasleek erabili ohi dituzten hizkuntzak konparazio bidez aztertuta.
- 3.3. Hitz kopurua handitzea eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea, latinismoak eta latinean nahiz grekoan jatorria duten ohiko lokuzioak modu koherentean txertatuz.
- 3.4. Eguneroko terminoen, termino zientifikoaren eta teknikoaren definizio etimologikoak egitea, grekoazko eta latinezko elementuak hainbat hizkuntza testuingurutan antzemanaz eta, hala badagokio, ondare termino baten eta kultismo baten arteko erlazio semantikoa ezarri.
- 3.5. Gure historian zehar jakintzak ezagutzea ahalbidetu duten kultura klasikoaren transmisio-elementuak aztertzea eta ezagutzea.

4 GAITASUN BERARIAZKOA

Ondare kultural, arkeologiko eta artistiko greko-erromatarra, historiaren testigantza, deskubritzea, ezagutzea eta baloratzeko. Hura babestu, gorde eta zaharberritzearen garrantziaz jabetzea, eta jasangarritasuna bermatzea.

4 kompetentzia espezifikoen deskribapena

UNESCOK dioenez, kultur ondarea produktu bat da, eta aldi berean prozesu bat, gizarteei ematen diena baliabideen sorta bat, iraganetik herentzian jaso, orainaldian sortu eta etorkizuneko belaunaldiak transmititzen zaiena. Orobat, mitologia klasikoarekin gertatzen den bezala, inspirazio

iturria da sormenerako eta berrikuntzarako, eta kultur produktu garaikideak eta etorkizunekoak sortzen ditu. Horregatik, kultur ondarea ezagutzeak eta identifikatzeak hura ulertzen laguntzen du, bai eta haren eboluzioa eta harremana denboran zehar. Zibilizazio greko-latindarraren legatua, materiala zein immateriala (aztarna arkeologikoak, testuen bitarteko transmisioa, hiriak antolatzea eta planifikatzea, mitoak eta kondairak, gizartearen ohiturak, errituak, eta abar), aparteko herentzia da, eta iraunen badu, oreka bilatu behar da bi alderdi hauen artean: kultura ondareari gaur egun probetxua ateratzearen eta aberastasun hori zaintzea etorkizuneko belaunaldientzat.

Ikertuko dira, batetik, mundu greko-erromatarren herentziaren iraupena eta, bestetik, hura zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak. Horretarako, baliabide analogikoak zein digitalak erabili behar dira, dokumentazio espazioetara iritsi ahal izateko, hala nola liburutegiak, museoak edo indusketak.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, KD1, KD2, KD3, KPSII3, EK3, KKAK1, KKAK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

4.1. Greziar eta erromatar zibilizazioaren elementuak azaltzea, literatura- eta arte-adierazpenen inspirazio-iturri gisa identifikatuz, alderdi eta garai guztietan.

4.2. Greziarren eta erromatarren aztarnak ezagutzea inguruko kultura eta arkeologia ondarean, bereziki gure inguruan, eta zaintzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuak identifikatzea, ingurumenaren jasangarritasunarekin eta haien legatua zaintzearekin konprometituta dauden herritarren funtsezko alderdi gisa.

4.3. Ahoz, idatziz edo modu multimodalean azaltzea zibilizazio greziarraren eta erromatarren legatu materialaren eta immaterialaren ikerketatik –banakakoa edo taldekoa– ateratako ondorioak, bai eta gaur egun duen iraupena ere, euskarri analogikoen eta digitalen bitartez, informazioa hautatuz.

2. OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Esparru geografiko eta historikoa.

- A.1. Grezia eta Erromako esparru geografikoa.
- A.2. Grezia eta Erromako hiriak: Erroma, Atenas, Esparta, Mizenas, Knosos, Ponpeia.
- A.3. Aurkikuntzak egin zituzten arkeologoak: Schliemann, Evans, Fiorelli, Marinatos.
- A.4. Greziako eta Erromako historiaren etapa nabarmenak.
- A.5. Grezia eta Erromako historia markatu zuten gerrak.
- A.6. Greziako historiako pertsonaia nabarmenak: Leonidas, Perikles eta Aspasia. Temistokles, Alexandro Handia, Aristoteles, Hipatia...
- A.7. Erromako historiako pertsonaia nabarmenak: Romulo, Lukrezia, Kornelia, Julio Zesar, Augusto eta Livia, Trajano eta Adriano...
- A.8. Sistema politikoak: demokrazia atenastarra eta errepublika erromatarra. Gaur egungo munduan irautea.

B. Mitologia eta kultura.

- B.1. Panteoi greko-latindarra eta haren mito ezagunenak.
- B.2. Greziako mundu mitikoko heroiak: Herakles/Herkules; Pertseo eta Andromeda; Jason eta Medea; Akiles eta Troiako gerra; Ulises eta Penelope; Teseo eta Ariadna; Edipo eta Antígona.
- B.3. Mitologia eta natura: Eko eta Nartziso; Apolo eta Dafne; Diana eta Akteon; Bauzis eta Filemon; Piramo eta Tisbe.
- B.4. Orakuluak: Delfosko Pitia eta Kumasko Sibila.
- B.5. Greziako jokoak jainkoen omenez.
- B.6. Gizartea Atenasen, Espartan eta Erroman. Emakumeak/gizonak; pertsona libre/esklaboak; herritartasunaren kontzeptua.
- B.7. Familia Grezian eta Erroman. Bizitzaren etapak (jaiotza, haurtzaroa, helduaroa, ezkontza eta heriotza).
- B.8. Hezkuntza Grezian eta Erroman: haurrak; pertsona libre/esklaboak.
- B.9. Greziako eta Erromako eguneroko bizitza. Herentzia gure gizartean eta gure ohituretan.

C. Hizkuntza klasikoak: etimologia eta lexikoa.

- C.1. Indoeuroparra gure hizkuntzen jatorrian.
- C.2. Alfabeto grekoa eta latindarra. Gaur egungo munduan irautea.
- C.3. Grekozko eta latinezko testuak irakurtzen hastea.
- C.4. Hizkuntza erromanikoak penintsulan eta munduan. Kokapena denboran eta espazioan.
- C.5. Etimologia greko-latindarrak: eguneroko hizkuntzan, kultuan eta hizkuntza zientifiko-teknikoan duten presentzia.
- C.6. Latinaren esamoldeak, Hainbat testuingurutan kokatzea.
- C.7. Liburuaren eta idazketa-euskarrien jatorria kultura klasikoaren transmisore gisa (oholtxoak, papiroak, pergaminoak...).
- C.8. Grezia eta Erromako pertsonaia garrantzitsuen esaldi ezagunak jatorrizko hizkuntzan.
- C.9. Latina eta grekoa gaur: publizitatean, komunikabideetan, kirolean, zine eta antzerkian, goiburuetan...
- C.10. Gure inguruan latinezko edo grekozko inskripzioak ezagutzea.

D. Legatua eta ondarea.

- D.1. Mitoak artean (pintura eta eskultura), literaturan eta kulturean (zinema, antzerkia, telebista).
- D.2. Eskultura Grezian eta Erroman. Mosaikoak. Pinturak (Knosos, pintura beltz eta gorriak, Ponpeia...).
- D.3. Arkitektura publiko greziarra eta erromatarra. Tenpluak, antzokiak, estadioak; akueduktuak, termak, zirkuak, zubiak, galtzadak, anfiteatroak...
- D.4. Arkitektura pribatu greziarra eta erromatarra. Greziako etxea; insulae, domus, villae.

- D.5. Zibilizazio greko-erromatarreko gunee arkeologiko garrantzitsuak (Erroma, Atenas, Ponpeia, Empúries...).
- D.6. Erromatar bide-sarearen presentzia Nafarroan.
- D.7. Erromatarren garaiko gunee arkeologikoak Nafarroan: Andelos, Santa Criz, Arellano, Santa Cara...
- D.8. Erromatarren gunee arkeologiko hurbilak: Los Bañales, Oiasso, Gesaltza.